



15620. PSIKOBIOLOGIAREN OINARRIAK I

Irakasleak: *Larraitz Garmendia eta Garikoitz Beitia* (31 Taldea, euskaraz)
Larraitz Garmendia, Oscar Vegas eta Idoia Leclerq (01 Taldea, gazteleraz)
Arantza Azpiroz, Oscar Vegas eta Idoia Leclerq (02 Taldea, gazteleraz)

Kodea: 15620

Enborrezko irakasgaia

Lehenengo maila

Lehenengo lauhilekoa

Kredituak Guztira: 7,5 Teorikoak: 5 Praktikoak: 2,5

HELBURU OROKORRAK

Aurkezten den irakasgaia, Psikobiologia Arloko beste irakasgaien sarrera da. Aztertzen diren gaietan, biologia zelularra, genetika, neurozientzia eta neuroendokrinologiaren oinarriko ezagutzak bateratzen dira, jokabide-prozesuetan inplikaturik dauden mekanismo biologikoak ulertuak izan daitezzen.

GAITEGIA

1. Gaia.- Zelularen antolakuntza orokorra.

Makromolekulen konposizio kimikoa eta funtzioak. Zelularen organizazio orokorra eta organulu zelularren egitura eta funtzioa. Espezializazio zelularra. Neuronaren morfologia eta gliako zelulen deskribapena.

2. Gaia.- Nerbio-sistemako zelulen fisiologia.

Nerbio-bultzada edo ekintza-potentzialaren sorrera eta hedapenaren ezaugarriak. Sinapsiaren adierazpena eta egitura. Potentzial postsinaptikoen sorrera. Integrazio sinaptikoa.

3. Gaia.- Neurotransmisoreak. Psikofarmakoen ekintzaren oinarri funtzionalak.

Neurotransmisoreen sailkapena. Neurotransmisoreen ekintza eta psikopatologiak.

4. Gaia.- Integrazio eta erantzun-sistemen oinarri funtzionalak.

Sentimen-hartzaile motak. Kodifikazio sentsoriala. Lotura neuromuskularra. Uzkuadura-prozesua.

5. Gaia.- Herentziaren oinarri kromosomikoak eta molekularrak.

Herentziaren teoria kromosomikoa. Ugalketa sexuala era asexualaren mekanismo genetikoak. Kode genetikoak eta proteinen sintesia.

6. Gaia.- Sexuaren genetika.

Sexuaren determinazio genetikoak. Lyon-en hipotesia eta dosi genikoaren orekatzea edo konpensazioa.

7. Gaia.- Herentzia motak. Herentzia eta ingurunea.



Herentzia sinplea gainartzailea eta azpirakorra, sexura loturikoa. Herentzia poligenikoa. Herentzia eta ingurunearen ekarpena ezaugarrien determinazioan.

8. Gaia.- Funtzio endokrinoaren ezaugarri orokorrak. Hormonak. Nerbio-Sistema eta Endokrino-Sistemaren arteko erlazioak.

Guruin endokrinoak. Hormonen ekintza-mekanismoak. Lotura hipotalamo-hipofisiarioak.

9. Gaia.- Hipotalamo-Hipofisi-Guruin ardatzak. Efektu fisiologikoak eta hormona-jariaketaren kontrola

Ardatz hipotalamo-hipofisi-tiroidea. Ardatz hipotalamo-hipofisi-adrenala. Ardatz hipotalamo-hipofisi-gonadala.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko Bibliografia

- BEAR, M.F. y col. (2002): "Neurociencia: Explorando el cerebro". Barcelona. Masson.
- CURTIS Y BARNES. (2000): "Invitación a la biología". Madrid, 6ª ed. Panamericana
- DE ABRIL ALONSO, A. y col. (UNED) (2003): "Fundamentos biológicos de la conducta". 2ª ed. Madrid Sanz y Torres, S.L.
- HADLEY, M.E. (1996): "Endocrinología". Madrid 4ª ed.. Prentice Hall.
- KALAT, J.W. (2004): "Psicología Biológica". Madrid 8ª ed. Thomson
- KLUG, W.S. and CUMMINGS, M.R. (1999): Conceptos de Genética. Prentice Hall.
- LODISH, H. Y COL. (2003): "Biología celular y molecular". Madrid 2ª ed. Panamericana.
- NELSON, R.J. (1996): "Psicoendocrinología". Barcelona. Ariel.
- PINEL, J.P.J. (2001): "Biopsicología". Madrid 4ª ed... Prentice Hall.
- PLOMIN, R., DeFRIES, L.L. y McCLEARN, G.E. (1990): "Genética de la conducta". Madrid. Alianza. 8ª ed.
- PURVES, D., AUGUSTINE, G.J., FITZPATRICK, D., KATATZ, L.C., LAMANTIA, AS., MCNAMARA, J.O. (2001): "Invitación a la neurociencia". Buenos Aires. Panamericana

EBALUAKETA

- Irakasgaiaren azken nota bi atalen batuketa eginez lortuko da: Teorikoa (75%) eta Praktikoa (25%).

- **Azterketa finala.** Ikasle guztiek, otsailean egingo den azterketa finalera aurkezteko eskubidea dute eta bertan notaren %100a lortzeko aukera izango dute. Azterketan, test moduko galderak, galdera irekiak eta praktiketako eta tailerretako galderak egingo dira.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



PSIKOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE PSICOLOGÍA

- Irakasgaiaren eduki praktikoei dagokion kalifikazioa, kurtsoaren zehar egin diren Gelako praktiketan, Ordenagailuko praktiketan eta tailerretan egin diren lanen bitartez lortu daiteke eta eduki praktikoareen azterketa egitea salbuetsiko du. Balorazioa, nota finalaren %25a izango da.

- **Azterketa Partziala eta ikasgaien liberazioa.** 9. asterainoko praktikak egin eta gainditu dituzten ikasleak eduki teorikoei buruzko azterketa partzialera aurkeztu daitezke nahi izanez gero, aste horretan bertan eta ordura arte emandako eduki teorikoa izango da aztergai. Puntuazioaren %60a edo gehiago lortzen duten ikasleak, proba finalean eduki horien azterketa egiteko salbuetsita egongo dira.

-Azterketa partzialean ikasgaien liberazioa lortu duten ikasleek azterketa finalera aurkezteko eta osoa egiteko aukera izango dute, horrela nahi izanez gero. Horrela balitz, azterketa finalean lortutako kalifikazioa izango da nagusituko duena.